

Zenbat ile duzu buruan?

Banan-banan zenbatzen hasten bazara, aspertu baietz! Horren ordeaz, zenbatzeko beste modu bat proposatzen dizugu: zenbatespena. Modu horretara dakigu, adibidez, zenbat izar dauden zeruan, eta zenbat neurona ditugun buruan.

Behar dituzu



- Bisita-txartel bat
- Bi kartoi mehe
- Kalkulagailua
- Erregela
- Grapagailua
- Pazientzia pixka bat!

Zer egin

1. Kartoi meheetan marraztu, erregelaren laguntzaz, 1 cm^2 -ko koadrotxoak.
2. Bi kartoi mehe horiekin, txapel bat egin ezazu. Nahi duzun bezalakoa egin, baina buruari ahalik eta estuen lotu behar zaio, eta ilea dagoen azal-zatia soilik estali behar du.
3. Zenbatu zenbat koadrotxo dituen zure txapelak. Osorik azaltzen ez diren koadrotxoak batu egin beharko dituzu, eta zenbatu, berdin-berdin. Zenbat koadrotxo ditu zure buruak? Hau da, zenbat zentimetro karratu ditu zure buruaren zati iledunak?
4. Bisita-txartelean marraztu, halaber, 1 cm -ko aldeak dituen karratutxo bat, eta guraizearekin moztu.
5. Jarri zulotxoa duen bisita-txartela buru gainean, eta laukitxo horretatik ateratzen diren ile guztiak zenbatu. Idatzi laborategiko koadernoan.
6. Gero, egin ezazu ariketa hau:
buruaren gainean zegoen ile-kopurua + belarriaren atzean zegoen ile-kopurua
7. Azkenik, buruan zenbat ile duzun jakiteko, bidertu ariketan atera zaizun zenbakia eta txapeleko koadrotxo-kopurua. $100.000-150.000$ mila ile omen ditugu buruan; zuk zenbat dituzu?



Komenigarria heldu
baten laguntza



OHARRA: zenbat eta leku
gehiagotan zenbatu ileak,
orduan eta fidagarriagoa izango
da aterako zaizun zenbakia.